

MORGA. Emuaren Erakusketea egingo da bigarren urtez

ONINTZA ENBEITA

Emuen haztegiatiko produktoreek euren animaliak erakutsiko dabez Morgako Andra Mari auzoan.

Emu okelea dastatzeko aukerea izango da bihar

Ñandu-ak, euskal antzarrak eta euskal oiloak be ikusgai izango dira

Iratxe Astuy

Aurton be, Emuaren erakustaldia egingo dabe Morgan. Izan be, bihar, domekea, ekimen hori hirugarrenez egingo dabe. Morgako emuaren erakusketea, Australiatik ekarritako animalia honen baliogarritasunak goraipatu eta ezagutu arazoteko egiten da. Horrezaz ganera, abeltzantza alternatiboa bultzatzeko be bai.

Asebi emuen haztegiatiko alkarteak osotzen daben sei produktoreek euren animalien erakusketea egingo dabe bihar Morgako Andra Mari auzoan. Ganera, ñanduak, euskal antzarrak eta euskal oiloak be ikusgai izango dira. «Animalia onenak ekarriko dabez», azaldu dau,

Iñaki Lejarraga Morgako alkarteak. Emuaren okela eta deribatuak dastatzeko emongo dabez publikoaren artean.

Morgako Emuaren III. Erakusketea hainbat animalia exotikoz osotuko da, batez be umeen gozamenarako ekarriko diranak. Gaztaia, sagardoa, txakolina, ogia, euskal pastela eta ezta salgai ipiniko dabez baita. Artisauen azokan, narrua, artilea, egurra eta keramikazko eskulangintzak izango dira, besteak beste. «Produktu ekologikoak erosteko aukerea be izango da», esan dau Lejarraga.

Morgako jatetxeetan, emuagaz eginiko jakiak emongo dabez bihar. Bazkaltzeko mahaiak agintzeko, beraz, jatetxeetara

aurretiaz deitzeko gomendatu dabe Morgako Udalekoek.

Okela gozoa

Emuaren okela gorria oso gihartsua da. Itxuraz eta zaporez txahalaren antzekoa da, baina proteina eta bitamina gehiagotzat. Zalantza barik, emua probetxuzko animalia da, ze haragia ez eze, narrua eta lumak be erabili leiteke erropak, oinetakoak edo jantzien osagarriak egiteko. «Ganera, olioak be atara leiteke bere gorputzetik. Animalia baktexeko hiru-lau litro olio hartu leiteke kosmetika produktuetan erabiltzeko edo botikak egiteko», azaldu dabe emuaren produktoreek. Australiatik ekarritako animalia hori ostrukaren antzekoa da.

KULTUREA. Txapelak Bizkaiko txapelketara joan ahal izango dau

Busturialdeko Bertsolari Txapelketea domeka arratsaldean jokatu dabe Elai-Alai aretoan

I.A.

Bizkaiko Bertsozale Alkarteak antolatuta, Busturialdeko Bertsolari Txapelketea izango da domekan Gernikan. Saioa 17:00etan hasiko da Elai-Alai uriko kultur aretoan.

Eskualdeko txapelketan, bertoko edonork parte hartu ahal izango dau, beti be antolatzaileek ipinitako baldintzak bete ez-

kero. Oinarrien arabera, 2002ko abenduaren 31rako 18 urte edo gehiago izatea derrigorrezkoa izango da izena emoteko orduan. Beste alde batetik, Bizkaian jaio edo bizi behar dau parte-hartzaileak. Azkenik, Bertsozale Alkarteko bazkidea izatea be eskatuko jako.

Busturialdeko Bertsolari Txapelketan irabazten dauenak Bizkaiko txapelketarako pasea

lortuko dau zuzenean. «2000ko txapelketako finalistek be pasea ziurtauta daukie», azpimarratu dabe Bizkaiko Bertsozale Alkartekoek.

Bizkaiko txapelketea udazkenean hasiko da, eta hiru ataletan jokatu dabe. Kanporaketak 5 saiotan egingo dabez, gero 3 finalaurreko izango dira, eta azkenik, finala. Aurton, 65 bat bertsolarik emon dabe izena.

GERNIKA-LUMO. Kalejirea egingo dabe herrian

Mila bat ume izango dira biharko Eskolarteko Dantzari Egunean

I.A.

Domeka honetan, umeen kalejireagaz hasiko da Eskolarteko Dantzari Eguna Gernikan. Guztira, eskoletako 1.100 bat ikaslek parte hartzea espero dabe. Dantzaldian, San Fidel eta Seber Altube Ikastolakoak eta La Merced, Allende Salazar, Santa Lucia eta Barrutia Ikastetxeetako dantzarien taldeak agertuko dira.

Dantzarien kalejirea 12:30ean hasiko da. Merkatu plazatik urtenda, herriko kale nagusietan ibiliko dira

umeak giro alaietan. Dantzarien saioak 13:00etan aurkeztuko dira Pasealekuan. Egitarauari jarraituz, agintaria, banangoa eta txotxongiaren dantzak egingo dabez. Gero, makil I eta II dantzak, txulalai, zapatain dantza eta Baztango eskudantza izango dira ikusgai. Hirugarren saioa, makil txiki, zozo dantza, euzko dantza, arku dantza eta zinta dantzakaz osotuko da. Amaieran, fandangoa, arinarina eta biribilketea dantzak ikusteko aukerea izango dabe danek.

Uriaren fundazio eguna gogoratzeko ekintzak eratu dauz Gernikazarra Taldeak

I.A.

Urtero egiten dauen lez, Gernikazarra Historia Taldeak uriaren fundazioaren urteurrena ospatzeko ekintzak antolatu dauz. Egurdi-ko 12:00etan, Gernikako mugetatik ibilaldia egingo dabe. Ostean, Foru Plazan dagoen On Tello fundatzaiaren irudiari jaietako zapia ipiniko deusie, eta aurrekua be dantzatuko dabe bere aurrean. Amaitzeko, gura daben gernikar guztiek oherrezko liburua sinatu ahal izango dabe, ondorengo belaunaldiak be ekitaldi hau urtero egiten dala jakin daien.

Gernikako uria, 1366. urteko apirilaren 28an sortu zan, On Tello Jaunaren eskutik. Hasiera baten Lumoko elizatik bananduta egoan, baina 1882 urteaz geroztik, Gernika-Lumo lez bateratuta geratu ziran bi

herriak. Izan be, batuketa horren oroitzapenez *8 de enero* izeneko kalea dago Gernikan. «Kale hori, uria eta elizatearen arteko antzinako mugearen seinale da», azaldu dabe Gernikazarra Historia Taldekideek. Gernikako uriaren fundazioaren ospakizuna orain bost urte inguru berreskuratu eben Gernikazarra Taldeko lagunek.

AGENDA**GERNIKA-LUMO**

Lorategietako jaiak: Auzo honetako jaiak dirala eta, Mus Txapelketea egingo da gaur, Lorategi tabernan, 16:00etan.

BERMEO

Txakurren erakusketea: Bermeoko Ehiza eta Arrantza Alkartek antolatuta, txakur erakuskarrien lehiaketea izango da Sollubeko Atxurra zelaian, domekan. Izena emoteko epea 12:30ean amaituko da. Hiru galeperrakaz egingo da.

28
apirilaren
GERNIKAN

Xabier Enbeita
Ander Oleaga
Onintza Enbeita
Iñaki Basterretxea
Iker Belaustegi
Anertz Muniategi
Igor Muniategi
Jon Rementeria

Busturialdeko
bertsolari
txapelketa
2002